

ETB.tik berri hitsak

Txillardegia

ORAINDIK ere "Egunkaria"ri buruzko jokabide lotsagarrien oihartzuna itzali ez zelarik (irakurleak dakienez, "Jaurilaritza" delakoak laguntzarik bat ere ez ematea erabaki du), beste lotsagabekeria batena hedatu da bazterretan: euskararen alorra bere eskuetan daukan "jaurilari" jaunak, Buesak alegia, euskara bultzatzea baino ingelesa bultzatzea hobe litzatekeela adierazi du. Zer gertatuko ote litzateke Barcelonan horrelako adierazpenik egingo balitz? Zeren, horretaraz gero, zertarako gaztelaniaz Salamancan erakatsiko? Pratikokoago litzateke ingelesez ikastea. Zergatik ez?

Baina gertakariak ez dira horretan agortzen. «Egonean giro» euskal telebista-saioa, "dirurik ez dagoela-ta", bertan behera uztea erabaki du ETB-ko zuzendaritzak. Ez dalehendabiziko ukaldia, ez pentsa. Euskaraz egiten zen «Ispiluan» telebista-saioa ere,

bertan behera gelditu da. Hain zuzen ere: euskarazko telesailen murrizketa dela-ta, ehun bat euskaldun langile geldituko bide da kalean datorren ekainean. Erdarazko sailak, berriz, zabaltzen ari diren zurrumurruen arauera, ikutu gabe geldituko dira. Moreno-ren "sevillanas" eta gainerako espagnoladak, tinko: horretarako badago dirurik...

Galdera zuzen bat: hizkuntz politikaren zuzendaria da Mari Karmen Garmendia anderea (PNV). Ados al da Mari Karmen erabaki hauekin? Ados da Arregi, Buesa eta gainerakoekin? Uste du benetan horiek direla euskara sustatzeko erabaki egokiak? Zergatik? Baliteke, gu bezala, ados ez egotea. Baina kasu honetan, zergatik ez du dimititzen? Galderak hor daude. Eta euskararen kontrako erabaki lotsagalduek ere, hortxe, tinko. Ezer erantsi beharrik ez dago.

Dire et faire

■ Quel homme est M. Paul Quilès, notre nouveau ministre de tutelle? Apparemment il est d'un calibre beaucoup plus conséquent que son pâle prédécesseur, lequel piétina de ses grises charentaises le sentier de la paix entrouvert voici trois ans par Pierre Joxe. Ancien ministre de l'urbanisme, du logement et des transports (1983-1985), puis de la défense (1985-1986), M. Quilès est aussi l'auteur d'un petit livre, «la politique n'est pas ce que vous croyez», publié en 1985 aux éditions Robert Laffont. Il y fait notamment l'éloge de la décentralisation (page 20) et de la régionalisation (pages 77 à 83). Il évoque aussi les 110 propositions de François Mitterrand (page 27). Sachons lui rappeler la proposition 54 qui nous promet un département du Pays Basque, promesse non tenue à ce jour, après onze ans de présidence. Il en reste à peine trois pour tenir parole. Et rien ne lui interdit d'aller au-delà, en donnant aussi au Pays Basque les prérogatives d'une région, par exemple avec un statut comparable à celui de la Corse. Je relève cependant, page 12, que M. Quilès dénonce «la fascination des Français pour le verbe». Puisse-t-il veiller lui-même à ne pas se borner au bien dire afin d'arriver jusqu'au bien faire. **J-L.D.**

Le voyage initiatique

■ la première du nouveau spectacle de Koldo Amestoy, samedi dernier à la salle Etxettoa de Macaye, nous a révélé combien cet artiste est en train de se hisser, à la force de seules paroles, au niveau des plus grands. Avec lui, il n'y a pas de grandes mises en scène publicitaires, d'annonces tapageuses et bruyantes. Et pourtant, spectacle après spectacle, une maturité artistique se fait jour qui laisse les spectateurs éblouis et ébahis, émerveillés de reprendre le chemin du rêve.

C'est bien de chemin qu'il s'agit cette fois avec «Apanize», ce malicieux berger en quête du dragon légendaire qui finit par rencontrer la belle Eki-lore. Tout au long de cette heure ponctuée d'un accompagnement musical des plus simples, les contes mythologiques se succèdent, ce qui n'empêche pas la réalité de se manifester (on se retrouve ainsi en plein Herri urrats!). Le voyage se finit sur la Côte Basque par la rencontre de ce vieux pêcheur qui ne manquera pas de faire état de sa sagesse, et à juste raison! Espérons qu'«Apanize» viendra bientôt nous voir sur la côte et en attendant long et bon voyage à l'ami Koldo. **F.C.**

ENBATA - hebdomadaire politique basque.

3, rue des Cordeliers 64100 Bayonne. Tél. 59 25 68 03 - Fax 59 59 74 67.

Abonnement d'un an: Etat français à partir de F. 290. Europe - Maghreb F. 380.

Afrique, Amérique, Dom-Tom (avion) F. 420.

Euskadi Sud - Etat Espagnol 7000 Pts.

Responsable de la Publication: Jacques Abeberry - Dessins: Etxebeltz

Imprimerie du Labourd - Bayonne - Commission paritaire: 38 226

Aberri eguna

■ "Bai independentziari kolektiboak oso positibotzat jotzen du aurtengo Aberri Egunarendako batasuna lortzea. Euskadi mailan Aberri Egun bateratu baten antolatzeo ideia sortu zitzaigularik, Iparraldean egun hori antolatzen duten talde eta alderdi politikoei proposamen hau egin genien: Aberri Egun bateratu bat egitea Hendaian, Bai independentziari lemarekin. Egun horren antolakuntza, sentsibilitate guzietako abertzalei idekia den Bai independentziari kolektiboak bere gain hartzea. Bazkaria Seaska, Hendaiaiko ikastola edo holako erakunde baten prohetxutuan egitea. Arratsaldean mahai inguru bat egitea, talde politikoei, «Iparraldea independentziaren bidean» edo «Nolako independentzia Iparraldearentzat» gaiarekin. Arratseko kantaldia, erreprezioren aurkako talde guzietan antolaturik, Hendaian eginen zen eta egin dirua preso guzien artean banatzea.

Bainan alderdi politikoei baitezpadakoa iduritzen zitzaizen bere antolatzea Aberri Egun osoa. Nahiz eta Bai independentziari kolektiboak ikusmolde hori ez izan, eritzi honi moldatzea erabaki zuten: Gure gain atxikitzen ginuen eguerdiko manifestaldia, Bai independentziari lemarekin. Arratsalde osoa alderdi politikoen gain uzten ginuen, bigarren manifestaldirik ez zela izanen baldintzarekin.

Azkenean, talde politikoak ados eman dira antolakuntza horrekin; eguerdiko bazkaria hauteskunde kanpainarentzat izatea erabaki dute, ostatu fresak ordaintzeko eta talde politikoen artean banatzeko izango delarik. Bai independentziari kolektiboak ostatu bat atxikitzea eskatu du bainan ukatua izan zaio. Bestalde zinez tamalgarrria zaio Bai independentziari kolektiboari gauean erreprezioren aurkako talde guzien artean antolaturiko dantzaldi bat preso guzien alde ez egitea.

Halere iduritzen zaigu helburu nagusia lortu dela: Aberri Egun bakar baten antolatzea aurten Iparraldean, goizean Iparralde eta Hegoalde elkaturik izanen direlarik, muga gaindi, gure herriaren independentziaren eskubidea aldarrikatzeko. Bai independentziari kolektiboak euskal herritar guzietan independentziaren ideia lantzeko tokiko taldetan biltzerat berriz deitzen ditu. Independentzia ez bada biharko ere, ez da ahantzi edo bazterrerat utzi behar dugun xedea. Gure herriaren eskubidea da! Zuek ere zatozte gurekin «Bai independentziari!» oihukatzerat!

Bai independentziari kolektiboak.

ULPko artzainen aldeko arratsa

■ Iragan larrazkenaz geroz, Euskal Herriko artzainek borroka luze eta gogor bat deramate beren irabazbideak zaintzeko eta Euskal Herri barnealdeak bizirik atxikitzeko. Borroka hori eremana da bai podere publikoer buruz, bai ta ere letxerier buruz. Sail hortan, dudarik gabe, ULP-ko artzainen kasua da aipagarriena, zeren alde batetik letxeria horrek baitu postura gogor eta ezetzkorra erakutsi bere artzain buruz, bainan ere beste aldetik, letxeria hortako ardidunak antolatu baidira buru egiteko eta elkartasun handi bat erakutsi.

Azkenik, ULP-ko buruzagiak saiatu dira artzainen borrokan aintzinean agertu direnak bazterterat, letxeria horrek Euskal Herrian duen «CLPB» deitu adarretik laborari andana bat mehatxuaren bidez (esnerik ez zutela bilduko eta abar...) atera araziz ULP deitu kooperatiban zuzenki sar arazteko. Buruzagien helburua zen dudarik gabe laborariaren bereixtea, bainan hauiek berriz ere jakin dute zepo horren baztertzen denek batean ULP hortan sartzea galdeginez. Ez da dudarik ondoko egunetan ere ULP-ko buruzagiak entseiatuko direla «agitateurs» deitzen dituzten laborariak letxeriatik kanpo ezartzerat, horien bekatua baita burua altxatu dutela, artzainak beren gain antolatu dituztela, eta hori ezin soportatuzkoa baita «kooperatifa» deitzen duten enpresa handi eta haundios hortan.

Borroka horren bihurtune hortan direlarik, artzainek deliberratu dute pesta handi bat antolatzea, irriño batekin beren enpresa haundiaren izenaz bataiatu dutena: «ULP 3 A» edo ULP-ko artzainen aldeko arratsa. Zedako pesta bat? Bixtan dena... diru biltzeko, holako borroka luze bat gostatzen baita eta hain segur gostako ere oraino! Bainan ere, artzainek elgarretaratzeko dituzten okasioneak tipitzen ta murrizten ari direlarik, eta aldiz holako zailtasunen aintzinean behar beharrezkoa den elkartasunak galdegiten baitu gogo azkar eta umore on. Pesta hunen helburu handi bat da ere bertze laborari mota guzietan, bai ta laborari ez diren, langile ala langabe, erakaste ala ikasle, artzainen sustengearren inguruan elgarretaratzeko, gizarteak gutartean altxatzen dituen zatiketak gau batez bederen haustea.

Sur votre agenda

- **jusqu'au 12 avril, XIBEROKO kultur egutegia:**

Gotaine, exposition "esukal dantzak". **Maule**, soirée rock-folk, Pitxu batzokian. **Gotaine**, conférence "les flûtes à trois trous" et ohidurazko txülülen jei aldia. **Hauze**, bestak.

- **jusqu'au 24 avril, DONIBANE GARAZIn** (herriko etxean), "Angeluko humorezko marrazkiaren 13 festibalaren gibel ikusaldia".

- **du jeudi 9 au dimanche 12 avril, DONIBANE LOHITZUen**: euskal antzerki festibala - Galartsak: "toberak eta maskaradak" (le 9 à 18h, grillerie du port), "In fraganti" (21 h, Rex); "gezur mezur" par Xirixiti Mirixiti (le 10 à 21 h, Rex); "hiru antzerki labor" (le 11 à 14 h, grillerie), "Eskiülako maskarada" (dès 15 h 30), "Aberenia" par Oztibarreko antzerkia (à 21 h, Rex); "Zuruko luma" par Markeline taldea (le 12 à 16 h 30, Rex) organisé par EATB, EH erakundea, Donibaneko herriko etxea.

- **Apirilaren 9an, 20/1/2etan, BIARRITZEn** (Saint-Martin elizan), "Elizondo abesbatzaren 50garren urtebetetzea", Juan Eraso Olaechea zuzendariarekin, Biarritz-culture-k antolatua.

- **Apirilaren 10an, 20/1/2etan, BAIONAn** (MJC Polo), kantaldi (Arizta, Rafa Magoa, Irigoyen anaiak) eta erromeria, Baionako gau eskolak antolatua.

- **samedi 11 avril, dès 20 h, DONAPALEUn** (marché couvert) soirée de soutien à la lutte des bergers d'ULP avec korre-kalle, souper animé par bertsulari, kantari puis bal folk.